

Eta gero gerokoak

Zein da Txapelketan gehien erabili den esaldia? Top 3ko hirugarren postuan egon daiteke «zerbaitengatik dira finalistak», bigarrenen, «saioak bakar-kakoetan egin du gora» eta, lehen postuan, alde handiz, «bai, baina hau Txapelketa da».

Izan ere, bertsolaritza ez da kirola, kultur adierazpide bat da eta ezin da unean bertan zerotik hamarrera puntuatu edo bertso hau zazpikoa eta hori seikoa dela ebatzi. Hori badakigu, baina hau Txapelketa da. Herriko bertso saiora bertsolariek esateko dutena entzutera joaten gara, ez klasifikazio baten bila. Baina hau Txapelketa da.

Plazan saio ona ateratzea espero da, baina hau txapelketa da eta espero dudana da X-k saio ona egitea. Urtean zehar zientoka bertso saio interesgarri izaten dira, gustuko kontestuan gustuko bertsolariak biltzeko probabilitatea handiagoa da, baina Txapelketa hau da. Bertsolariek urtean zehar badituzte saio gehiago, baina astean bizpahiru bertso eskola eta kuaderno-ko lana eginda Txapelketara doaz. Bertso gogoangarriak plazan ere entzuten dira, bai, baina Txapelketan entzuten direnak antologiko bihurtzen dira.

Txapelketa ardura handia da. Sekulako jarraipen mediatikoa egiten zaio,

dena grabatzen da, milaka belarritara heltzen da eta Bertsozale Elkartearen erakusleihu handiena izango da. Espektakulu honetako pieza bakoitza da, bere erara, horretaz kontziente. Tesituran, alderdi kontserbadorea gailendu zaigu askotan, hainbeste, non gure lagun “gazteei” finalera ez pasatzea opa izan baitiegu, handitxo gertuko zitzaielakoan, edo finalean hiru emakume irudikatu baitira asko jota.

Hau Txapelketa delako, analisi sakon bat egingo zaio eta, era berean, hau delako Txapelketa bildu dira zortzi bertsolari, merezimenduz. Eman diezaiogun akabera eder bat honi, eta gero gerokoak. •



**Eli PAGOLA
APEZETXEA**

Plaza bat herri batentzat



Ion T. BARRENA

Ezlekuan harrapatu ninduen final hark. Guardia Zibila bila etorri zitzaigun eta ezkutuan, ganbara batean kartzelari iskin egin nahirik. Hilabete neraman inor ikusi gabe eta gure herriaren berri izan gabe.

Irratiak lainoen babesa zuenean soilik ekartzen zidan euskarazko frekuentziaren bat, eta zeru estali baten zain nintzen, final hartan nolabait egon ahal izateko.

Iritsi zen finalaren eguna. Atarian oйлasko bat. Inguruko parajeak zuri, elurrez, eta zerua estalita. Irratia piztu... eta bai! «Egun on dagizuela guztioi eta

ongi etorri Bertsolari Txapelketa Nagusiko finalera». Uauuuu...

Txapelketako saio batera sartzean orduko poza datorkit beti gogora. Poza baita bertsolari txapelketa niretzat, eta hunkitzea, eta melankoniaz negar egiteko gogo, parte sentitzekoa.

Zenbat behar dugun poz hori, parte sentitze hori. «Egun on» esan eta maiz, gehiegitan, «*buenos días*» edo «*bonjour*» erantzuten digun herri honetan. Gu ere mutur-oker uzten gaituen erantzuna; kexu eta ezinean azpimarra egitera garamatzana, behin eta berriz. Erabilerak behera egin duela eta gurea dela ardura. Hizkuntza bat

dakienak ez duelako egiten galduko balitz bezala! Kaka zaharra! Hizkuntzak ez dira galtzen, hil egiten dituzte.

Aspaldi esan ziguten beldurra bandoz aldatu behar dela, ardurak ere aldez aldatzea ez ote den komeni...

Euskarak eta herri honek Bertsolari Txapelketarena bezalako plazak behar ditu; ase, oso eta kide sentiaraziko gaituztenak. Mendeko edo bazterreko biziarazten gaituen gizarte honetan la-sai, zentro eta eroso sentiaraziko gaituztenak. Lehen mailako plaza bat, konpromiso ariketarik gabe, plazer hutsez beteko dugun plaza. Goza dezagun. •